Amnistiaren aldeko eta errepresioaren aurkako mugimendua

# BELEN GONZALEZEN HERIOTZAREN AURREAN ANTE EL FALLECIMIENTO DE BELÉN GONZALEZ

*2017ko azaroaren 17(e)an*

Tabla de contenidos

1) [EUS]
2) [ES]

## 1 [EUS]

Bart Belen Gonzalez Peñalva euskal preso politikoa hil da Donostiako Ospitalean. Belenek 8 urte zeramatzan «espetxealdi arinduan», A Lamako (Pontevedra-Galiza) kartzelan minbizi bategatik ebakuntza egin eta gero bere gaixotasuna konponezina zela ebatzi zutenetik.

Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimenduak doluminak helarazi nahi dizkio Belenen familiari eta tristura adierazi albiste honegatik.
Bestalde, gure mugimenduak Belenen ibilbide militantea goraipatu nahi du. Oso gaztetatik eskaini zion bere bizitza Euskal Herriaren askatasunaren aldeko borrokari, eta kartzelan egonda ere duintasun eredua izan da. Azkenik, preso hil da Belen, espetxealdi arindua aplikatuta bazioten ere, neurri honek eguneko 24 orduetako kontrolpean mantentzen zuelako eskumuturreko telematiko baten bidez. Belen hil denean eskumuturra jarrita zeraman oraindik.

Gaur bezalako egun batean ezin dugu ahaztu gaixorik dauden preso politikoen egoera, eta oso bereziki Ibon Iparragirrerena. Hil zorian dago Ibon eta, hala ere, Jose Luis Castro Antonio epaile faxista bere etxeratzea atzeratzen ari da informe mediku berrien beharraren aitzakiapean, denbora hori Ibonen bizitza salbatzeko erabakigarria zian

daitekeela jakitun baldin bada ere.

Mendekua baino, xantaia da Espainiako Estatua euskal preso politikoekin egiten ari dena. Uztailean bertan Aitzol Gogorzak salatu zuen *Langraitz Bideari* heltzea eskaini ziotela (http://amnistiaaskatasuna.blogspot.com.es/2017/07/aitzol-gogortzaren-erantzuna-espetxeko.html), damutzea ala hiltzearen joko gaiztoan ari direla agerian utziz.

Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimenduak borrokarako deia egin nahi du beste behin ere. Kasu hauen aurrean ez da nahikoa gizartearen ulerkortasuna humanoa bilatzea, baizik eta erosotasun burgesetik atera behar dugula herria. Kaleak borbor jarri beharra dugu militante politiko hauek etxera bizirik bueltatzea nahi badugu. Antolakuntzaz eta borrokaz lortuko dugu. Agur eta ohore, Belen!
Euskal Herria, 2017ko azaroaren 16a.

Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimendua.

# 2 [ES]

Esta noche ha fallecido en el Hospital de Donostia la presa política vasca Belén González Peñalva. Llevaba 8 años en situación de «prisión atenuada», desde que tras ser operada de un cáncer en la cárcel de A Lama (Pontevedra-Galiza), determinaran que su enfermedad era irreversible.
El Movimiento Pro Amnistía y Contra la Represión desea hacer llegar sus condolencias a la familia de Belén y expresar su tristeza por esta noticia.
Por otra parte, nuestro movimiento quiere ensalzar el recorrido militante de Belén. Desde muy joven ofreció su vida a la lucha por la libertad de Euskal Herria y, también estando en prisión, ha sido un ejemplo de dignidad. Finalmente, Belén ha muerto estando presa, ya que aunque le habían aplicado la prisión atenuada, esta medida la mantenía controlada durante 24 horas al día por medio de una pulsera telemática. Cuando ha fallecido, Belén aún llevaba la pulsera puesta.
En un día como el de hoy no podemos olvidarnos de la situación en la que se encuentran lxs presxs políticxs enfermxs, y muy especialmente

de la de Ibon Iparragirre. Ibon se encuentra al borde de la muerte y, a pesar de todo, el juez fascista José Luis Castro Antonio está retrasando su vuelta a casa bajo la excusa de que necesita nuevos informes médicos, aún sabiendo que ese tiempo puede ser decisivo a la hora de salvar la vida de Ibon.

Más que venganza, lo que el estado español está haciendo con lxs presxs políticxs vascxs es un chantaje. En julio fue Aitzol Gogorza quien denunció que le habían ofrecido acogerse a la *Vía Nanclares* (http://amnistiaaskatasuna.blogspot.com.es/2017/07/respuesta-de-aitzol-gogortza-al.html), dejando al descubierto que están llevando a cabo el perverso juego del «arrepiéntete o muere».

El Movimiento Pro Amnistía y Contra la Represión quiere hacer un nuevo llamamiento a la lucha. Ante estos casos no es suficiente buscar la compresión humana de la sociedad, sino que debemos sacar de su comodidad burguesa al pueblo de Euskal Herria. Necesitamos convertir las calles en un hervidero si queremos que estxs militantes enfermxs vuelvan a casa vivxs. Lo conseguiremos mediante la organización y la lucha. Agur eta ohore, Belen!

En Euskal Herria, a 16 de noviembre de 2017.

Movimiento Pro Amnistía y Contra la Represión.